



Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2022ko abenduaren 21eko EBAZPENA, 2022-2023 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen lehen, eta bigarren berritzeak ebazten dituen.

Laguntzak berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren lehenengo berritzea onartzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren bigarren berritzea ematea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren hirugarren berritzea ematea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Laugarrena.- Laguntza berritze horien zenbatekoak ordaintzea xedapen honen I. II. eta III. eranskinetan aurreikusten diren aplikazio-zentroeiei, ekainaren 21eko Aginduak, 5.6 artikuluan, ezartzen duen moduan.

Bostgarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa, iraupena eta gainerako baldintzak, 2022ko ekainaren 21eko aginduak xedatutakoak izango dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 21a.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea,
Adolfo Morais Ezquerro